

LABEK URRATS BERRI BAT EMAN DU EUSKAL ESKOLA PUBLIKO KOMUNITARIOA BIDEAN

Urteetako lanketaren ostean, gaur, maiatzak 26, berri da irakaskuntzako lan hitzarmenaren horniketa atala. Hau da, ratio eta eskolako baliabideen inguruko akordioa erdietsi du LABek Hezkuntza Sailarekin.

LAB sindikatuak izenpetu berri duen akordioak (Steilas, CCOO eta UGTekin) baldintza hobean kokatzen du Euskal Eskola Publikoa. Izan ere, bermeak lortu dira jaiotza kopuruen beherakadaren aurrean, enplegua sortu eta egonkortzeko. Horretaz gain, ratioen beherakadak ahalbidetuko du irakaslegoaren lan zamen doitzea eta haur eta ikasleei eskaini ahal zaien arretan hobetzea. Azpimarratzekoa da ere gaur egun funtzionamenduzkoak diren lanpostuak egiturazko bihurtzeko bidea ematen dela.

Aldarrikapen asko dira akordioan jaso direnak, hala nola, errepikatzaileak edo matrikula bizi bidez gehitutako ikasleak ratioetan kontutan hartzea, %10eko ratio jatisiera gehigarria Hezkuntza Konplexutasun Handiko (HKI) zentroetan, ikasle/gelako ratioak pixka bat murrizteaz gain, ikasle/irakasle ratioak ezartzea.

	Gaur egun dagoena	Akordioari loturik
Haur Hezkuntza – 2 urtekoak	18 ikasle / gelako	18 ikasle / gelako 12 ikasle / irakasleko
Haur Hezkuntza	23 ikasle / gelako	20 ikasle / gelako (18 ikasle / gelako HKI altuan) 18 ikasle / irakasleko
Lehen Hezkuntza	25 ikasle / gelako	23 ikasle / gelako (20 ikasle/gelako HKI altuan) 20 ikasle / irakasleko
Bigarren Hezkuntza	25 ikasle / gelako	25 ikasle / gelako 20 ikasle / irakasleko
Batxilergoa	30 ikasle / gelako	27 ikasle / gelako 25 ikasle / irakasleko

Bistan da, gela bakoitzean jardungo duen ikasle kopuruaz gain, aldagai berri bat gehituko zaiola ikaskuntza-irakaskuntza prozesuari. Ikasle/irakasle ratioa ezarriz, bide emango zaio irakaskuntza partekatuari, tutorizazioaren binakako jarduteari, gelako bikoizketak egiteari edota eskolari esleitutako baliabide gehigarriak bertako hezkuntza proiektuei lotuz definitzeari.

Hala ere, sortu dira beste zenbait baliabide gehigarri gaur egungo eskolen funtzionamenduari gehituko zaizkionak. Hala nola, laguntzako eta errefortzuko irakasleen kopurua handituz,

zuzendaritza taldeen hornidura handituz, hezkuntza premia berezien esleipena handituz, Bigarren Hezkuntzan tutoritza bikoitzak sortuz edota administrariak eta IKT teknikarientzako 500 lanpostu sortuz.

Azken finean, eskola guztietan egiturazko PTak gehituta (ikasleen diagnostikoei lotuta egon gabe) eta aholkularien gehikuntzarekin, aurrera pausua emango da ikasleen aniztasunari erantzuteko baliabideetan. Azpimarratzekoa da eskoletan berrikuntza eta prestakuntza-proiektuen koordinatzaileak gehituz bidea irekiko dela, LABentzat oinarrizkoak diren 4 giltzarrietan eragiteko: eraldaketa pedagogikoa, hezkidetza, euskararen normalkuntza eta inklusioa.

Gauzak horrela, gaurko aurrerapausu hau etorriko direnen lehena izatea espero du LABek. Izan ere, lan baldintzak zein lizentzia eta baimenak arautzen dituen akordioan ere urratsak emateko garaia dela deritzogu. Gaur gaurkoz, interinoen eta karreradun funtzionarioen artean mantentzen diren desorekek amaiera izan behar dutela iritzita, dei egiten diogu Sailari negoziaketan indarrak biderkatzeko.

Bitartean LABek hor jarraituko du:

*“Euskal Eskola Publiko Komunitarioa ipar izanik,
langileon eta ikasleen beharrei erantzungo dien erronketan bulkada berriak sortuz.”*

Euskal Herrian, 2022ko maiatzaren 26an